

55.000 lagun Caritasera laguntza eske

Pobrezia «kronikoa, zabala eta larria» da Hegoaldean, Caritasen urteko txostenean ohartarazi duenez

Jon Rejado

Caritasek iaz 55.472 pertsonari eman zien laguntza Hego Euskal Herrian. Laguntzak mota askotakoak diren arren, oinarrizko beharrietan erantzuteko laguntza eskariek gora egin dute, eta horien artean etxebizitzarekin lotutakoa nabarmendu dute probintzia guztietako Caritaseko arduradunek. «Familiaren zorpetzearen arazoa geroz eta larriagoa da», azaldu du Santos Gil Arabako Caritaseko zuzendariak. Hain zuzen ere, krisiak aurrera egin ahala langabezia arazoek zorpetze horri aurre egitea geroz eta zailagoa egiten duela gogoratu du.

Krisi ekonomikoa hasi zenetik lau urte igaro ondoren, pobrezia «kronikoa, zabala eta larria» dela azaldu du Caritasek. Hain zuzen ere, geroz eta jende gehiago gerturatzaren zaila, baina pobreziatik ateratzeko ezin den denbora daramaten pertsonak dira Caritaseko zerbitzuetara jotzen duten gehienak, eta zerbitzu horiek hilabeteetan erabili dituztenak.

Horretaz gain, krisi ekonomikoak irauten duen heinean, Caritasera jotzen dutenen ezaugarriak aldatuz doa. Emakumezkoak eta etorkinak dira oraindik gehienak, baina beste ezaugarri batzuetakoak ere agertzen ari dira: pentsio txikia dutenak eta lanik gabe dauden seme-alaben

beharrei ere erantzun behar dieten edadetuak, adingabeak, bizitzan lehen aldiz behar egoeran dauden pertsonak eta nora jo ez dakitenak...

Egoera geroz eta konplexuagoa dela ohartarazi du Ana Sofi Telletxeak, Bizkaiko Caritaseko Ikerketa Saileko langileak. Konplexutasun horren barruan, bazterketa egoeran dauden talde guztien artean, buruko gaitzak dituztenak geroz eta gehiago direla ohartarazi du. Baliabide materialak amai-

tu eta gero krisiak irauteak eragiten dituen arazoak gogorarazi ditu. Horrez gain, pobrezian dauden gehienak emakumeak izateak haien seme-alabengan duen eragina ere nabarmendu du.

Oharra agintari politikoei

Iazko jardunaren berri emateaz gain, Caritasek egungo egoeraren balorazioa ere eman du. Bertan, besteak beste, instituzio eta agintari politikoen jokabidea gaitzetsi du. Hain zuzen ere, krisi

ekonomikoaren une latzenezan gertatzen diren laguntzetan eta zerbitzuetan murrizketak egitea aurpegi-rati die. Ez hori bakarrik. Lege eta araudien bidez murrizketa horiek areagotzea ere kritikatu du.

Eusko Jaurilaritzak gutxienean diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko irizpideak aldatu izana ere gaitzetsi du Caritasek. Arduradunek azaldu dute aldaketa horrengatik Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 3.600 pertsona geratu direla laguntza hori jaso

gabe, eta haietako hainbatek Caritasen zerbitzuetara jo dutela. Laguntza hori zein etxebizitzako osagarria Lanbideren arduraren bitartez eskera arduratzen egiten direla salatzen dute.

Arabako eta Bizkaiko Caritasen etxebizitzarako laguntza osagarriaren egoera salatzen dute. Araban argitu gabeko 1.800 txosten daudela nabarmendu du Santos Gilek, nahiz eta bi hilabete epean argitu behar zituzten. Txosten horiek argitu bitartean, laguntzaren zain daudenei Caritasen berak aurreratzen die dirua, alokairua ordain dezaten. Bizkaian egoera bertsua dela azaldu dute. «Eskubidea onartuta eduki arren, ez dakigu zer korapilo duten bertan, baina sei hilabeteko atzerapenarekin daude», azaldu du Ana Sofi Telletxeak.

Kritikak kritika, gaur egun dauden arazoek aurre egiteko alde guztietan hitz egiteko borondatea duela adierazi du Caritasek. Erakundearen laguntasuna eta zenbait ekinbide ere eskertu dituzte. Besteak beste, Jose Ramon Treviño Gipuzkoako Caritaseko gotzain ordezkariek gogoratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza bat abiarazi duela oinarrizko errentatik kanpo geratzen direnei diru sarrerak bermatzeko.

Itxaropena

Krisi une gogorren egon arren elkartasunak ere gora egin duela gogoratu dute Caritaseko Hego Euskal Herriko arduradun guztiak. Mota guztietako elkartasun keinuek gora egin dute, eta borondatezko lana egiten duten pertsonen milaka orduak daukaten garrantzia ere gogoratu dute.



zure ziztada behar dugu

Askok osatzen dugu BERRI lagunen komunitatea. Kultur eta arte sortzaileek ere bai. Atxikimendu hori erakusteko artegileek beren lan bana aukeratu eta erakutsiko dute astean behin. **Igandea** gehigarriko azken orria. **Gozatu bihar Dora Salazarren margolanarekin.**

Izan zaitez **berrialaguna**

Informazio eguneratua eta euskarri gehiago: www.berria.info/berrialaguna

berrialaguna izan nahi baduzu

- www.berria.info/berrialaguna
- Postaz: BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- Posta elektronikoz: laguna@berria.info
- Telefonoz: 943-30 43 45

berria info

Murrizketa oro salatu dute itunpeko irakasleek

Nafarroak ezarri nahi dituen neurrien kontra egin dute sindikatuek, eta patronalaren jarrera ere kritikatu dute

Edume Elizondo Iruña

Ezezko biribila. Erantzun hori eman diete Nafarroako itunpeko irakaskuntzako Sepna, ELA, LAB eta UGT sindikatuek Hezkuntza Departamentuak ezarri nahi dituen murrizketei. Neurri horien ordez Nafarroako itunpeko irakaskuntzako zentroek egin duten proposamena ere ez dute onartu. «Murrizketak Nafarroako Gobernuak ezarri nahi ditu; harena da erantzukizuna. Patro-


nalak langileok egin nahi gaitu gal daitezkeen lanpostuen erantzule, eta ez gaude xantaita hori onartzeko prest», erran du Ricardo Abetek, Sepna sindikatuko ordezkariak.

Gobernuak, sindikatuek eta zentroetako arduradunek maiztaren 25ean egin zuten bilera. Hezkuntza Departamentuak argi utzi zuen 3,9 milioi euro aurreztea zela ezarri beharreko neurrien helburua. Joan den astean, zentroek salatu zuten neurri horien ondorioz itunpeko 105 irakasle lanpostua galduko dela. Bertzelako proposamen bat egin zuten lanpostuei eusteko: irakasle lanpostuak eta zentroek jaso beharreko diru laguntza %2 jaistea. Proposamen horren alde egi- teko eskatu zieten sindikatuei.

Baina sindikatuek ez dira ados. «Errealitatearen alderdi bat baino ez du erakutsi patronalak», erran du Abetek. Soldata eta diru laguntza jaisteaz gain bertzelako neurriak ezarriko liratekeela gaineratu du, eta neurri horiek langileen baldintzei, eta, batez ere, irakaskuntzaren kalitateari kalte egingen lieketela. «Ordezkapenak hamargarren egunetik aurrera egingen lirateke; 57 urtetik goitikoek ezin izanen lukete lan jardunaldia murriztu; eta erretiro partziala dutenek eskola ordu gehiago eman beharko lukete».

Mobilizazioak

Sindikatuek ez daude murrizketak onartzeko prest, eta haien kontra elkarretaratzeak antolatu dituzte datozen asteetarako. Hila-



10.200 sinaduratik goiti aurkeztu dituzte Hezkuntzan. LANDER F. ARROIAIBE / ARP

ren 11n eta 18an, itunpeko ikastetxe guztietan egingen dituzte. Hilaren 25ean, berriz, Hezkuntza Departamentuaren egoitzaren aurrean egingen dute, 14:00etan.

Irakaskuntza publikoko mobilizazioak ere ez dira amaitu. Atzo,

10.200 sinaduratik goiti aurkeztu zituzten Sortzen Ikasbatuaz-ek, Herrikoak eta bertze hainbat eragilek, murrizketen aurka. Astelehenean, berriz, bilera dute sindikatuek eta Hezkuntza Departamentuko arduradunek.